

# ALKATEAREN BANDOA

## NAFAR LANSARE-NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAREKIN LANKIDETZAN 2018KO APIRILERAKO LAN ESKAINTZA.

Honen bitartez, Aresoko Udalak jakinarazten du:

- 1.- 2018an herriko bide, kale, plaza eta parkeak, garbitu, margotu eta mantentzeko lanak egin behar dira.
- 2.- Lan horiek burutzeko **BI PERTSONA** kontratatuko dira. Interesa duten pertsonen artean, baldintza berezi batzuk betetzen dituztenei emango zaie lehentasuna. Hain zuzuen ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte, eta hurrenkera honi emango zaio lehentasuna.
  1. Bermatutako Errentaren jasotzaileak.
  2. Emakumezkoak.
  3. 45 urtetik gorako gizonezkoak edota, 30 eta 44 urteen arteko gizonezkoak, epealdi luzean langabezian daudenak (azken 18 hilabeteetan 12 hilabetean gutxienez lanik gabe direnak).
- 3.- Kontratatuko diren pertsonak **langabezian** eta **NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN** inskribatuta egon behar dute.
- 4.- Doneztebeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bulegoan inskribaturik daudenei luzatuko zaie lan deialdia.
- 5.- Kontratazioak sei hilabeteko iraupena izanen du: apirilaren erdi aldetik urriaren erdialdera arte eta lanaldiaren hiru laurden (%75) beteko dute.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Areson, 2018ko apirilaren 9an.

